

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna



Gizaki guztiek eskubide eta askatasun guztiak dituzte aldarrikatuta adierazpen honetan, honako arlo hauetako inolako bereizketarik egin gabe: arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa edo beste edozein eratakoa, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein arrazoi.

2. artikulua, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948

Berdintasuna eskubidea da, baina zein da errealitatea?

Euren sexua edozein dela ere, **gizakien berdintasuna Zuzenbide Bateratuaren funtsezko printzipioa da.** Hori dela eta, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloan, Europar Batasunaren (EB) helburuetakoa da bi sexuen aukera eta tratu berdintasuna bermatzea eta sexuan oinarritutako bereizkeria guztien aurka borrokatzea. Maila instituzionalean, berdintasunerako eskubidearen arabera, honako hauxe sustatzeko politikak, planak, programak eta neurriak jarri behar dira abian: txirotasunaren aurkako borroka, hezkuntza eta osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera, ekonomian eta edozein arlotako erabakietan izan beharreko partaidetza, genero-indarkeriaren aurkako borroka... Hau da, emakumeen eskubideen defentsa berdindu beharra dago giza eskubideen defentsarekin.



emakumea = pertsona eta gizona = pertsona
orduan zer?

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030



**GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**



**“Legezko berdintasuna”
egia bihurtu dadin,
gizarte osoaren uste
sendoa, inplikazioa
eta partaidetza lortu
beharra dago. Era
berean, zure eta nire
esku ere badago.**

Ez da gauza bera sexua eta generoa

Sexua Jaiotzatik ditugun **ezaugarri fisiko zein biologikoen eta gorputz-ezaugarrien** multzoa da.

Generoa Gizakiei esleitutako ezaugarri psikologiko, sozial eta kulturalen multzoa da. Tradizioari begira, ezaugarri horiek sexuaren arabera esleitu direnez, "gizonezko" eta "emakumezko" ereduak daude. Eredu horiek, gainera, desberdinak dira gizarte batzuetan eta besteetan, eta denboran zehar ere bai.

Sexuak ez du gizakien izaera zehazten, gizarteak berak dioskulako zer den emakumea eta gizona izatea. Horrela, bada, gizakien ahalmenak mugatzen dira.

Adibidez:

Europako tradizioari begira, makinaz jostea emakumeekin lotutako jarduera izan da betidanik. Pakistanen, ordea, gizonak dira josten dutenak.

GENERO-BERDINTASUNA. Zergatik? Zertarako?

Gizakien eskubideak, erantzukizunak eta aukerak ez dira euren gizentasunaren edo emetasunaren araberakoak izan behar. Genero-berdintasunak ez du zereginen desberdintasuna gaitzesten, euren hierarkizazioa baizik. Ez du onartzen zereginen banaketa gizakien arteko desberdintasunak sortzeko erabiltzea. Hau da, alderdietako batek bestearen izaera menderatzeko, mugatzeko eta baldintzatzeko boterea edukitzea.

Genero-desberdintasunen ondorioa larria da benetan: genero-indarkeria.

Ez dugu genero-indarkeria betiketzerik.

Gizona nahiz emakumea izan, ez onartu inolako genero-indarkeriarik!

Genero-indarkeriarik **EZ!**



GENEROAREN ERAKETA SOZIALA

Jaio garenetik, gure sexuaren arabera hezten bagaituzte (joko desberdinak, arau desberdinak, balio desberdinak, aurreikuspen desberdinak...), "emakumezko" eta "gizonezko" ereduak hartzen ditugu geure gain.

Horren ondorioz, sexuaren arabera bereizitako zeregin sozialak sortzen dira, eta hezkuntzaren, ekonomiaren, erlijioaren, sistema politikoaren... arabera aldatzen dira historian zehar.

GENERO-HARREMANEK boterearen zein baliabideen lorpena eta kontrola zehaztu eta baldintzatu egiten dituzte zenbait kulturatan

Hori dela eta, gizonak eta emakumeak ez dira modu berean lekurtzen gizartean bertan. **GENERO-HARREMANEZ** ari gara.

Zer faktorek zehazten dituzte genero-harremanak?

Faktore kulturalak	Hezkuntzak, erlijioak, tradizioek... familien eta harreman sozialen ereduak zehazten dituzte.
Komunikabideak	Gizakien eta hauen bizimoduen estereotipoen sorrera sustatzen dute.
Sistema ekonomikoa	Azken urteotan emakumeak laneratu diren arren, oraindik ere askok eta askok beheragoko mailako lanpostuak betetzen dituzte, diru gutxiago irabazten dute lan berbera egin arren, ez dute gizarte-segurantzarik...
Sistema politikoa	Oso garrantzitsua da emakumeak gobernuan egotea, berdintasunezkoak diren erabakiak hartzeko, baina batez ere, emakumeen artean eragin zuzena duten arloetan.
Legeak	Gaur egun, sistema judizialak lehen babestutako eta justifikatutako bereizkeriazko egintza batzuk zigortzen dira.
Hezkuntza	Ikasgeletan ezarritako hezkuntza-sistemaren ereduak eta familian igorritako balioak funtsezkoak dira etorkizunean desberdintasunik gabeko bidezko gizarteak eratuko dituzten helduen prestakuntzan.

GENERO-BERDINTASUNA, IRAUPEN-LASTERKETA

- Europan, gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasunaren aldeko borroka XVIII. mendearen amaieran hasi zen, 1789an iraultza frantsesaren eta osteko iraultza liberal burgesen ondorioz lortutako askatasunak, eskubideak eta berdintasun juridikoa gizonei bakarrik ezartzen zitzaizkienean.
- Zenbait porrot eta arrakasta iragankorren ostean, XX. mendearen erdialdera arte, Lehen Mundu Gerraren ostera arte, ez ziren mugimendu feministen aldarrikapenak egia bihurtu.
- XXI. mendean, zenbait faktoretan aurrera egin dugun arren, oraindik badago zer eginik genero-berdintasuna egia bihurtu dadin.

Europan, 1906an Finlandia izan zen emakumeei bozkatzeko aukera eman zien lehenengo herrialdea.

Zenbait herrialdetan, emakumeen egoera zibilaren edo maila sozialaren baldintzapean zegoen botoa.

Beste herrialde batzuetan, Espainian, esaterako, diktadurak ezarri zirenez, ez gizonek ez emakumeek ez zuten bozkatzeko eskubiderik izan hamarkadetan zehar.



© Indalecio Ojanguren. AGG-GAO_OA03230

1933-11-05. Euskal emakumeek lehen aldiz izan zuten hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea.

GIZAKIEN BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUMEENTZAKO BABESA, NAZIO BATUEN ERAKUNDETIK (NBE)

- ↳ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948)
- ↳ Emakumeen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa (1952, 1954an onartutakoa)
- ↳ Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkerien Desagerpenari buruzko Konbentzioa (1967, 1979an ezarritakoa)
- ↳ Emakumei buruzko Munduko Konferentziak



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legea



Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa




Emakumeen Gutuna (EE 2010)



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategia Europarra 2010-2015

“Generoaren betaurrekoak”, mundua ikusteko beste modu bat



Gaur egun, bereizkeriazko genero-harremanak daude mundu zabalean:

- Emakumeen txirotasunaren indize handiagoa
- Hezkuntza eta osasuna eskuratzeko desberdintasunak
- Emakumeen aurkako indarkeria
- Boterea eta baliabideak eskuratzeko desberdintasunak
- Gatazka armatuek emakumeen artean dituzten ondorioak
- Zama handiagoa etxeko lanetan eta familiaren zainketan
- etab.

Ingurura begiratuz gero, ziur asko ikusiko dituzula.

Bereizkeriak gainditzeko, ikusi egin behar dira lehendabizi.

Bereizkeriaren aurkako genero-harremanak funtsekoak dira emakumeen eta gizonen berdintasunari begira.

Hasiera ona... geure familia behatzea

Gaur egun, oraindik desberdintasun-maila handia dago familietan. Hain zuzen ere, desberdintasun handiak daude etxeko lanak banatzean edo etxera heltzeko ordua zehaztean. “Egoera nabarmen aldatu” arren, gaur egun ere askotan emakumeak dira etxeko lan-zama handienaz arduratzen direnak. Ariketa labur hau egitea proposatzen dizuegu.

Zure familiako berdintasun edo desberdintasun egoeraz hausnartu duzu? Konturatu gabe edo interesagatik, ez dugu halakorik egiten.

Zenbat aldiz entzun edo esan duzu “etxeko andrea da, ez du lan egiten”. Horri buruz hausnartu duzu? Emakumeak berak aukeratu du ala ez du beste aukerarik eduki? Edonola ere,

EZ DU LAN EGITEN?

Hurrengo taula edozein egunetan bete eta, gero, aurreko galderei erantzun. Ziur zure iritzia aldatu egingo dela.

Jarduera	Ama	Aita	Alaba	Semea	..
Loaldia					
Norberaren zainketak					
Etxeko lanak					
Etxez kanpoko kudeaketak					
Soldatapeko lana					
Prestakuntza					
Borondatezko lana					
Harreman sozialak					
Beste jarduera batzuk					
Astialdia					

Aukera-berdintasuna eskaintzen duen bidezko eta errespetuzko gizarte-ereduaren alde.

Neska-mutilak euren jakintzak, jarrerak eta interesak suspertzeko gai izan behar dira, euren sexua zein den kontuan hartu gabe.

Berdintasunean oinarritutako hezkuntza

ESKOLAN...

Neska-mutilak errespetuan, aukera-berdintasunaren alde eta genero-indarkeriaren aurka heztea funtsezkoa da bidezko gizartea lortzeko orduan, gizakien sexuagatiko desberdintasun biologikoek euren askatasuna eta iritzia adierazteko eta erabakitzeko eskubidea baldintzatu ez ditzaten.

ETXEAN...

Semei eta alabei desberdin hitz egiten diegu euren sexuaren arabera (hiztegia, doinua...)? Hizkuntza ez-sexista erabili behar dugu.

Gure jarrera desberdina da neskak ala mutilak direnean? Nola erantzuten diegu euren maitasun-eskaerei? Lankidetzara bera eskatzen diegu etxeko lanak egiteko orduan? Adore bera ematen diegu euren aurreikuspenetan?... Desberdintasun horiek zuzendu behar ditugu.

Eskura dituzten jokoek, ipuinek, telebista-saioek, Interneteko erabilerak... desberdintasunezko jarrerak sustatzen dituzte? Egiatzatu egin behar dugu.

Ama edo aita bazara, gogoan izan eragin handiko jokabide-eredua izango zarela semearentzat edo alabarentzat.

“Hezkuntza da mundua aldatzeko erabili daitekeen arma ahaltsuena”

Nelson Mandela



© argazki irekia, GV

Enplegua eta lan-berdintasuna

Euren sexua edozein dela ere, titulazio, gaitasun eta esperientzia bereko gizaki guztiek lan-aukera eta diru-sarrera berberak eduki behar dituzte.

Gure gizarteko gaur egungo ereduan, enplegua edukiz gero, independentzia ekonomikoa izango dugu. Hori dela eta, bizitzeko buruaskitasuna eta geure bizimodua aukeratzeko askatasuna izango ditugu.

Horrez gain, lanaren arloan aukera-berdintasuna lortuz gero:

- giza ahalmena eta norberaren gaitasunak areagotuko dira enpleguan.
- lan-arloa aberasgarriagoa izango da.

FAMILIA ARLOKO UZTARKETAREN MITOA


Oro har, emakumeak laneratu direnean, ez da inolako aldaketarik gertatu familia edo bikote arloko harremanetan. Hori dela eta, emakumeak lanez gainezka daude etxean.

Familiako erantzukizunen eta etxeko lanen banaketa berdintasunezkoa bada, gizartean, lanean edota politikan parte hartzeko aukera gehiago izango dituzte emakumeek.



Lana eta familia uztartzeko, babes instituzionala ez ezik (Berdintasunerako Legea, Mendetasunari buruzko Legea...), baterako erantzukizuna ere egon behar da etxean, etxeko lanak egiteko eta familia zaintzeko orduan.

Taula. Biztanle okupatuak, etxeko lanetan emandako orduen eta sexuaren arabera. EAE. 2012.



Iturria: EUSTAT. Lanaren, familiaren eta bizimodu pertsonalaren uztarketa.

BERDINTASUNEZKO PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA

Tradizioari begira, gure gizartean, etxearekin lotutako eginkizunak esleitu dizkiete emakumeei (etxeko lanak, adingabeen, gaixoen, adinekoen zainketa...). Beraz, ez dute behar besteko aukerarik izan, gure erkidegoa antolatu eta eratzten duten arloetan parte hartzeko. Horrela, bada, gizonak ziren haien lan-baldintzei, familiako betebeharrei... buruzko erabakiak hartzen zituztenak.

Zorionez, egoera hori aldatu egin da azken hamarkadotan, eta gero eta partaidetza aktiboagoa dute.

Emakumeek erabaki sozial eta politikoetan (gizartearen bilakaera eta etorkizuna) parte hartzen badute, erabakiok adierazgarriak direla bermatu ahal izango da.

Nik zerbait egiten dut... eta zuk?

EGUNEZ EGUN, BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA

- "Generoaren betaurrekoak" erabiltzea, desberdintasunak antzemateko eta aldatzeko.
- Semeak eta alabak familia, giza eta gizarte balio berberetan hezteak.
- Etxeko lanak eta seme-alaben zainketa banatzea.
- Euren sexutik haratago, gizaki guztien balioa aitortzea.
- Inoren askatasuna ez mugatzea eta inor ez jazartzea.
- Norbaitek (emakumea nahiz gizona izan) zeregin tradizionalak hautsi eta aukeratu duen gustuko lana egiten duenean poztea.
- Hizkuntza ez-sexista erabiltzea.
- Gizonen eta emakumeen berdintasuna lortzeko lan egitea.
- GENERO-INDARKERIA GAITZESTEAK.



i

Gehiago jakiteko

- ↳ Bizkaiko Foru Aldundia. Gizonen eta Emakumeen Berdintasuna.
- ↳ Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana 2012-2015.
- ↳ Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia.
- ↳ Nazio Batuetako Erakundea Genero Berdintasunerako eta Emakumeen Jabekuntzarako, NBE Emakumeak.
- ↳ Europako Batzordea, Genero Berdintasuna.
- ↳ Emakumearen Euskal Erakundea - Emakunde.
- ↳ Emakundeko Nahiko, Hezkidetzarako Programa.
- ↳ Osasuneko Desberdintasunen Behatokia.
- ↳ Emakumeen Dokumentazio Zentroa.